



Lanaren nondik norakoak:

- Aukeratu zuen naturaguneko 4 landare. Horietako 2 zuhaitzak izan daitezela eta beste biak landare belarkarak.
- Aukeratutako lau landareak zuen artean banatu, deskribapena egiteko. **Landareetako batek, nahitaez, igebelar zuria** behar du izan, eta zuhaitzek, **hagina** eta **ezki hostozabala**, natura-monumentu izendatutako espezie horietako aleak daudelako Antoñanan.
- Aukeratu 2 hegazti, 2 ugaztun, 2 anfibio edo narrasti, eta 2 ornogabe eta zuen artean banatu. **Hegaztietako batek, nahitaez, okil ertaina** behar du izan, parkeko bereizgarria delako
- Aukeratutako izaki bizidunen argazki bat bistan duzuela, haren ezaugarri fisikoen deskribapena egin.
- Gehitu (Interneten bilatu ondoren) bestelako ezaugarriak: elikadurari, ugalketari edo bizimoduari buruzkoak.
- Mehatxatutako espeziea bada, aipatu zer mehatxu-maila duen: horretarako Euskadiko naturari buruzko informazio-sistema erabil dezakezue.
- Espezie bakoitzari buruzko lanaren luzera 100-150 hitz artean egon behar da.
- Euskadiko naturari buruzko informazio-sistemak eta webgunean duzuen Euskadiko geobisoreak lagunduko dizuete jakiten zer lekutan kokatu izakien deskribapen horiek gure bisita birtuala egiten dugunean.
- Amaitzean, zirriborro bakoitza taldekideei erakutsi, egokia eta ulergarria iruditzen zaien aztertu dezaten. Azkenik, zirriborroa irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan.
- Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko testuak eta audioak grabatu.